

1997ko LAAen laburpen-planoa

Lurralde-antolakuntzaren erronkak, gaur




Ion Etxabe °
Gako-hitzak: Lurralde antolamendua, Lurralde Antolamendurako Artezbidien berrikuspena

		ALDE ONAK	
		1997ko LAAen ARABERA	2011ko BERRIKUSPENAREN ARABERA
LURRA MANTENDU	> LURRALDEAREN ARTIFIZIALIZAZIOAREN ONDORIOAK ONARTZEN DIRA.	> LUR URBANIZAEZINEN BABES HANDIA EGITEN DA. HAZKUNDE BERRITIK BABES-ESTRATEGIAK BULTZATZEN DIRA.	> LURRALDE-ERREALITATEAREN SEGIMENDUA. UDAL-PLANEN KOORDINAZIOA.
	> LURRALDEAREN ARTIFIZIALIZAZIOAREN ONDORIOAK ONARTZEN DIRA.	> LUR URBANIZAEZINEN BABES HANDIA EGITEN DA. HAZKUNDE BERRITIK BABES-ESTRATEGIAK BULTZATZEN DIRA.	> LURRALDE-ERREALITATEAREN SEGIMENDUA. UDAL-PLANEN KOORDINAZIOA.
BIRGAITZE-LANAK SUSTATU	> EKONOMIA-BIRMOLDAKETA HIRI-BERRITZE AUKERA BEZALA.	> BIRGAITZE-LAN ESTRATEGIA EZBERDINAK.	> BIRGAITZE-LANAK LAN BERRITIK LEHENTASUNA.
	> EKONOMIA-BIRMOLDAKETA HIRI-BERRITZE AUKERA BEZALA.	> BIRGAITZE-LAN ESTRATEGIA EZBERDINAK.	> BIRGAITZE-LAN ETA BERRERABILERA-ESTRATEGIAK.
ERREPIDE-ZIRKULAZIO MOTORIZATU PRIBATUA MURRIZTU	> AUTO PRIBATUAREN ERABILERA MURRIZTU BEHAR DELA ONARTZEN DA.	> GARRAIOA BIZI-KALITATEAN DAUKAN GARRANTZIA IKUSTEN DA.	> GARRAIO PUBLIKOAREN ALDEKO APUSTUA.
	> AUTO PRIBATUAREN ERABILERA MURRIZTU BEHAR DELA ONARTZEN DA.	> GARRAIOA BIZI-KALITATEAN DAUKAN GARRANTZIA IKUSTEN DA.	> GARRAIO PUBLIKOAREN ALDEKO APUSTUA.
HERRITARREN HEZKUNTZA SUSTATU	> INGURUMEN-HEZKUNTZARI SUSTAPENA.	> IKASTEKO ESPAZIOEN ALDEKO APUSTUA.	> HIRI-HAZKUNDEAREN ETA GARRAIO PUBLIKOAREN ARTEKO HARREMANA BEHARREZKOA IKUSTEN DA.
	> INGURUMEN-HEZKUNTZARI SUSTAPENA.	> IKASTEKO ESPAZIOEN ALDEKO APUSTUA.	> HIRI-HAZKUNDEAREN ETA GARRAIO PUBLIKOAREN ARTEKO HARREMANA BEHARREZKOA IKUSTEN DA.

Analisisa: Lurralde-antolakuntzaren erronkak, gaur

2011ko LAAen laburpen-planoa



Zein da EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezbideten (LAA) etorkizunerako planteamendua?
 Zer gertatzen da LAA eta gaurko garapen-ereduaren desorekengatik sortutako erronkak aurrez aurre ipintzen baditugu?

ALDE TXARRAK				
1997ko LAAen ARABERA		2011ko BERRIKUSPENAREN ARABERA		
<p>LAU IRIZPIDEETAN KOMUNAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> > EKONOMIAREN ANTOLAMENDUA LEHENTASUNEZKO OINARRI BEZALA. > IKUSPEGI ZUZENENEK ESTEKADURA NORMATIBORIK EZ DUTE. > KONTZERTUZKO DEFINIZIO FALTA AURKITZEN DA. BESTE GAIEN ESTRATEGIARAKO BURU-ARGITASUNA DAGO, ORDEA. > ERANTZUN ZUZENAK, BAINA BARNE-PLANTEAMENDU EZTABAIDAGARRIAREKIN. 	<ul style="list-style-type: none"> > HIRI-HAZKUNDEA HELBURU NAGUSI BEZALA. > LURREN BABESA BETI ERABILERA ZEHATZ BATEKIN. > GEHIEGIZKO ETA ZEHAZTASUNIK GABEKO ORDEZKARITZA GARAPEN- PLANETAN. > ARAUDI ARTEKO ADOSTASUN FALTA. 	<p>LAU IRIZPIDEETAN KOMUNAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> > JASANGARRITASUNA-JASANGARRIA-IRAUNKORRA HITZEN ERABILERA HUTSA. > EKONOMIAREN ANTOLAMENDUA LEHENTASUNEZKO OINARRI BEZALA. > IKUSPEGI ZUZENENEK ESTEKADURA NORMATIBORIK EZ DUTE. > KONTZERTUZKO DEFINIZIO FALTA AURKITZEN DA. > BESTE GAIEN ESTRATEGIARAKO BURU-ARGITASUNA DAGO, ORDEA. > ERANTZUN ZUZENAK, BAINA BARNE-PLANTEAMENDU EZTABAIDAGARRIAREKIN. > GAUR EGUNGO DINAMIKA BATZUEN ZALANTZAN JARTZEAREN FALTA. > ESKARIAREN ETA BEHARRAREN ARTEKO NAHASKETA DAGO. > PLANTEAMENDU EZBERDINEN ARTEKO KONTRAESANA. > ARAZO GLOBALAREN AURREAN ERANTZUN SINPLE ETA GABEZIEKIN EMATEN DIRA. > GEHIEGIZKO ETA ZEHAZTASUNIK GABEKO ORDEZKARITZA GARAPEN-PLANETAN. > EAE-REN HIRI-ESKUALDE ITXURA FALTSU BAT EMATEN DA. DISKURTZO PROPAGANDISTAREN ETA AGIRI TEKNIKOAREN ARTEKO NAHASKETA. > ULERMEN-ARAZOAK ERREDAKZIOAREN KALITATEA DELA-ETA. 	<ul style="list-style-type: none"> > HIRI-HAZKUNDEA HELBURU NAGUSI BEZALA. > LURREN BABESA BETI ERABILERA ZEHATZ BATEKIN. 	
	<ul style="list-style-type: none"> > BIRGAITZE-LANAK HAZKUNDE BERRIEKIN BATERA EGITEN DIRA. > ALDE ZAHARRAK HELBURU NAGUSI BAKAR BEZALA. 	<ul style="list-style-type: none"> > LAN BERRIARI BULTZADA HANDIA EMATEN ZAIO. > BERRITZE-LANAK HIRI- ETA EKONOMIA-ERAKARGARRITASUN BEZALA, ETA EZ HOBEKUNTZA SOZIAL BEZALA. > ALDE ZAHARRAK HELBURU NAGUSI BAKAR BEZALA. 	<ul style="list-style-type: none"> > MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUN OSOA BULTZATZEN DA. > ABIADURA HANDIKO TRENA GARRAIO PUBLIKOAREN HELBURU NAGUSIA. 	<ul style="list-style-type: none"> > MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUN OSOA BULTZATZEN DA. > ABIADURA HANDIKO TRENA GARRAIO PUBLIKOAREN HELBURU NAGUSIA.
	<ul style="list-style-type: none"> > MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUN OSOA BULTZATZEN DA. > GARAPEN EKONOMIKOA BEHAR SOZIALEN GAINETIK. > AUTO PRIBATUA GARRAIO MODU NAGUSI BEZALA. > ABIADURA HANDIKO TRENA GARRAIO PUBLIKOAREN HELBURU NAGUSIA. 	<ul style="list-style-type: none"> > HEZKUNTZA HEZIKETA MAILA ESPEZIALIZATU ETA ELITISTA BATI ZUZENDUTA DAGO, BAITA EKONOMIA-LEHIAKORTASUNERAKO. > HEZIKETA INGURUMEN-HEZKUNTZAN GERATZEN DA. 	<ul style="list-style-type: none"> > HEZKUNTZA HEZIKETA MAILA ESPEZIALIZATU ETA ELITISTA BATI ZUZENDUTA DAGO, BAITA EKONOMIA-LEHIAKORTASUNERAKO. > HEZIKETA INGURUMEN-HEZKUNTZAN GERATZEN DA. 	<ul style="list-style-type: none"> > HEZKUNTZA HEZIKETA MAILA ESPEZIALIZATU ETA ELITISTA BATI ZUZENDUTA DAGO, BAITA EKONOMIA-LEHIAKORTASUNERAKO. > HEZIKETA INGURUMEN-HEZKUNTZAN GERATZEN DA.
	<ul style="list-style-type: none"> > ZEHAZTASUN FALTA PLANTEAMENDUETAN. > HEZIKETA INGURUMEN-HEZKUNTZAN GERATZEN DA. 	<ul style="list-style-type: none"> > HEZKUNTZA HEZIKETA MAILA ESPEZIALIZATU ETA ELITISTA BATI ZUZENDUTA DAGO, BAITA EKONOMIA-LEHIAKORTASUNERAKO. > HEZIKETA INGURUMEN-HEZKUNTZAN GERATZEN DA. 	<ul style="list-style-type: none"> > HEZKUNTZA HEZIKETA MAILA ESPEZIALIZATU ETA ELITISTA BATI ZUZENDUTA DAGO, BAITA EKONOMIA-LEHIAKORTASUNERAKO. > HEZIKETA INGURUMEN-HEZKUNTZAN GERATZEN DA. 	<ul style="list-style-type: none"> > HEZKUNTZA HEZIKETA MAILA ESPEZIALIZATU ETA ELITISTA BATI ZUZENDUTA DAGO, BAITA EKONOMIA-LEHIAKORTASUNERAKO. > HEZIKETA INGURUMEN-HEZKUNTZAN GERATZEN DA.


Finkatu dezagun testuingurua: gaurko garapen-eredua (Mendebaldekoa, kapitalista) gure planeta den espazio itxian hazkunde mugagabe batean oinarritzen da, baliabide mugatuak kontsumituz. Hainbat urtetan hazten egon eta gero, planeta pistak ematen hasi da: petrolioaren erauzketa topea petroliokonpainiek beraiek onartu dute, eta hazkunde ekonomikoari emandako lehenetsunaren ondorio diren desoreka natural, ekonomiko eta sozialak (bai eskala lokalean bai globalean) ugariak dira.

Horren guztiaren arazo nagusia eredu hau mantentzen duten sozietateen aztarna ekologikoak lortu duen maila da. Hori erageldiezinean hazi egin da, esan liteke teknikak gizakiari bere ondoan zituen baliabideak kontsumituzetik (sistemak berak bere burua mugatuz) urruneko lurraldeko baliabideak kontsumitzera pasatzea ahalbidetu zionetik (hazkunde eta garapen lokalaren ahalmena handituz). Gainera, egoera honen ezjakintasun sozial zabalduak oso zaila egiten du eredu-aldaketa bateranzko pausoak ematea.

Beraz, lurralde- eta hiri-antolakuntzak krisi globalaren egoera honek planteatzen dituen erronkei lehenbailehen aurre egin behar die. Gaurko ereduaren garapena onartu eta lagundu duten tresnak bezala, teoriarik aldaketa eragiteko oso potentzial handia eskaintzen dute. Nahiz eta daukagun testuinguruari (lehenago aipatutakoa) moldatu behar izan, ezin dugu lurralde- eta hiri-plangintzak erronka horiei aurre egiteko daukan ahalmena baztertu, ez eta bere gaitasuna aldaratu aipatutako desorekak historian zehar baliatzeagatik. Beste arloetan bezala, daukagun tresnen erabilera nork eta nola egiten duen, horren menpe dago.

Ikus dezagun orduan zer gertatzen den testuinguru honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Artezbideten (1997) edukia aztertzen bada.

Helburua: gaurko ereduaren dinamikak jarraitzen dituen praktiken mantentze-lanak laguntzen dituen ala ez ikustea. Bidezko eta orekatuagoa den eredu baten aldeko irizpide batzuk zehazten baditugu, adibidez:



> **Lurra mantendu** (eta haren kontsumoa murriztu). Praktikaren neurketa: Ez dira luraren okupazio-murrizketaren joerak ikusten; artifizializazio mailak handituz doaz. Ez da hazkunde jasangarri bat, jarraitua baizik.

> **Birgaitze-lanak sustatu** (lan berrien aurretik). Praktikaren neurketa: Birgaitze-lanei bultzada handia eman arren, lan berrien eraikuntza ez du murrizketak adierazten. Izan ere, 2000 eta 2006 urteen artean etxebizitza berriaren superabita egon da.

> **Errepide-zirkulazio motorizatu pribatua murriztu** (garraio publikoa eta hurbiltasuna bultzatuz). Praktikaren neurketa: Erabilitako adierazleek erakundearen auto pribatua garraio nagusi bezala mantentzeko apustua erakusten dute. Kasu garrantzitsu batzuetan garraio publikoa ez da autoarekin lehiatzeko gai.

> **Herritarren hezkuntza sustatu** (aldaketaren giltza nagusi bezala). Praktikaren neurketa: Herritarrentzako hezkuntza gartzeko baliabide handia dago, baina ez da gauzatzen. Gizarteak informazio gehiago eskatzen du eta herri-kontzientziarioa hobekuntzarako giltza nagusi bat bezala ikusten du.

Eta LAA-ek lau esparru horietan esaten dutenarekin eta beraien praktikaren neurketa adierazleekin parekatzen baditugu, lurralde-plangintzarako agiri horrek lehen aipatutako erronkei aurre egiteko dituen moduen ikuspuntu nahiko zabala eskuratu dugu, bere alde onak eta kaltegarriak lortuz. Bi taula eskematiko hauek ikusita eta aztertuta, honako hau frogatzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan bi diskurtso kontraesankor topatzen direla (taula bakoitzean Alde onak eta Gai problematikoak laburtzen dituzten gelaxkak ez dira konparatu behar). Bi diskurtso horien artean, garapen ekonomikoarena jasangarritasun bideraezin baten gainetik nagusitzen da.

Orain arte ikusitakoak lurralde-antolamendu berri bat sortzeko premia behar garamatza, hurrengo hiru puntu hauetan oinarrituta:

- Hirigintza-tresnen hazkundearen muga natural, ekonomiko eta sozialei behar den bezala aurre egiteko gabezia.
- Muga horiek inposatuko dituzten aldaketa handietara aurretazko beharra hiri- eta lurralde-antolakuntzaren lehenetsun bat izan behar da. Batez ere, enargiarako irisgarritasunean izango diren aldaketak eta horien ondorio sozialak.
- Tresnen transformazio hori funtsezkoa izatea derrigorrezkoa da. Dударik gabe ez da bide erraza izango, eta ez dira orain arte LAA-etik egindako ahaleginak gutxienesten, baina beraien eruditik abiatzen bada, zaila izango da aldaketa. Emaitzek adierazten duten bezala, lurralde- (eta hiri-) antolamendurako plangintza-tresnak gauden egoera globalera egokitzea pentsatzen hasiko beharko dugu; ondorioa izateaz gain, zergatia garelako gogoratu behar dugu.

Bibliografia

- ESPAÑA. ETXEBIZITZA MINISTERIOA. "Libro blanco de la Sostenibilidad en el Planeamiento Urbanístico Español" [linean]. Fariña Tojo, José eta Naredo, José Manuel (zuz.). Madrid: Etxebizitza Ministerioa, 2010eko apirila.
- HERNÁNDEZ AJA, Agustín. "Sostenibilidad, medio ambiente y derecho a la ciudad". Argitaragabeko txostena, Grupo de Investigación en Arquitectura y Urbanismo más sostenibles, Universidad Politécnica de Madrid, 2008.
- URKIDI ELORRIETA, Pello. "Las políticas de Ordenación del Territorio en la Comunidad Autónoma Vasca, 1990-2006" [linean]. Boletín de Asociación de Geógrafos Españoles, 2010, 52. zk., 189-212.
- VÁZQUEZ, Mariano. "Pensar el territorio desde las perspectivas ecológica, social y económica" [linean]. Madrid: CF+S Buletina, 45. zk., 2009.